

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak Txinako gazteen ordezkari-tza instituzionala hartu du

Bisitariak Nafarroako homologoekin bilduko dira eta Hizkuntza Eskola Ofizialean topaketa-eztabaida egingo dute

Viernes, 20 de mayo de 2011

Txinako gazteen erakundeetako ordezkari-tza bat Nafarroara etorri da maiatzaren 20tik 22ra, Foru Komunitateko homologoekin elkarrizketak egiteko Europako Gazteen Astearen barruan. Aurten aste hori Asiako herrialde horri eskainita dago.

Nafarroara iritsitako ordezkari-tza 16 pertsonak osatzen dute, baina talde osoa 120 kidekoa da. Gainerako kideak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara joan dira. Foru Komunitatera iritsi direnak Guantxi, Shandong, Pekin eta Tibetekoak dira, eta talde horren barruan kazetari gazte batzuk daude.

Gaur, ostirala, maiatzak 20, 19:00etan, Txinako ordezkari-tza Ana Frías Pardo Nafarroako Gazteria Institutuko zuzendariarekin eta organismo horretako profesionalekin bilduko da. Horiek Nafarroako Gobernu-ko programei buruzko informazioa emango diete. Bihar, maiatzak 21, ordezkari-tzak Nafarroako Unibertsitate Publikoa bisitatuko du, eta arratsaldean Txinako ordezkari-tzaren eta Hizkuntza Eskola Ofizialean txinera ikasten ari diren ikasle gazteen artean topaketa-eztabaida egingo da, Andrés Herrera Nafarroako Ikasketa Txinatarren Sareko arduradunak dinamizatuta. Igandean, maiatzaren 22an, Elena Abad Nafarroako Gazteria Kontseiluko lehendakariak eta organo horretako kideak Txinako ordezkari-tzarekin bilduko dira informazioa trukatzeko, eta hala bada, etorkizuneko lankidetzak aztertzeko. Amaitzeko, ordezkari-tzak Arte Garaikidearen Uharteko zentroa bisitatuko du, baita hauteskunde-mahai bat ere.

Europako Gazteen Astea

Txinako ordezkari-tzaren bisita ez da Nafarroako Gazteria Institutuak Europako Gazteen Astea dela-eta antolatu duen jarduera bakarra. Horri lotuta, irratitailerra egin da Nuevo Futuro elkarteak koordinatuta, programa informatibo bat grabatzeko (

www.krearadio.org), Juventud en Acción programak eskaintzen dituen aukerei eta esperientziei buruz. Programa horretan Europako gazteek parte hartu dute eta gaur egun Nafarroan boluntarioen zerbitzuan, gazteen elkarteetan eta boluntariotza-programen kudeaketarako organismoetan aritzen dira. Horrez gain, toki entitateek ere parte hartu dute, hala nola Corellako eta Atarrabiako Udalek, Europako ekimenak hartzen dituzte eta.

Juventud en Acción Europako programa bat da eta gazteen mugikortasuna sustatzen du, Europar Batasunaren barruan eta esparru horren mugetatik kanpo. Ikaskuntza-aukerak eskaintzen ditu hezkuntza ez-formalari lotuta, herritarren parte-hartzea bultzatzen du eta aukera gutxiago dituzten gazteen gizarteratzeari mesede egiten dio. Horretarako, programaren barruan, gazteek hainbat jarduera egin ditzakete: truke-ekintzak, askotariko ekimenak, partaidetza demokratikoaren proiektuak, langileei eta gazteen liderrei trebakuntza-babesa eskaintzea eta gazteentzako programen arduradunen arteko topaketak. Era berean, hizkuntza jomugan bertan ikasteko aukera eskaintzen du.

Gaur egun Europar Batasun osoan eta herrialde elkartuetan 4.100 entitatek baino gehiagok boluntarioritza-ekintzak eskaintzen dituzte hurrengo hauen inguruan: artea eta kultura, ingurumena, komunikabideak, hezkuntza kirolaren bidez, desgaitasuna, landa-garapena eta osasuna. Programa honetan parte hartzeko interesa dutenek Nafarroako Gazteria Institutuan informazioa lor dezakete (Yanguas y Miranda 27. zk.,